

OINARRI OROKORRAK ETA ESPEZIFIKOAK, ETA HAUTAKETA PROZESURAKO KANPOKO DEIALDIA, GIZA BALIABIDEEN ETA ORIENTAZIOAREN ZUZENDARITZAKO LANPOSTU FINKOA ESTALTZEKO HAUTAKETA PROZESUA.

23/2022 Foru Arauak, abenduaren 20koak, Arabako Lurralde Historikoaren 2023. urterako aurrekontua betearaztekoak, 2024. urterako luzatutakoak, Giza Baliabideen eta Orientazioaren Zuzendaritzarako lanpostu baten aurrekontuko zuzkidura jasotzen du sozietatearen langileei buruzko eranskinaren barruan. Lanpostu hori hutsik dago.

Plaza huts horren, eta hala badagokio, sortu berri den plazaren eginkizunak, erantzukizunak eta sarbide sistema Administrazio Kontseiluak, 2021eko abenduaren 29an egindako bilkuran, eta Indesa 2010 SL sozietatearen hitzarmenak berak onetsi zituzten lanpostuak deskribatzeko eta baloratzeko memorian jasotzen dira.

Urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuak, Langile publikoaren oinarritzko estatutuaren legearen testuategina onesten duenak, eta abenduaren 1eko 11/2022 Legeak, euskal enplegu publikoaren buruzkoak, dagokion hautaketa prozesua irekitzea ezartzen dute. Horren bidez bermatuko beharko dira, besteak beste, deialdiaren eta haren oinarrien publizitate printzipioak; hautaketa organoetako kideen gardentasuna, inpartzialtasuna eta profesionaltasuna; hautaketa organoen jarduketaren independentzia eta diskrezionalitate teknikoa, hautaketa prozesuen edukiaren eta garatzeko eginkizun edo egitekoen arteko egokitzapena, eta arintasuna, betiere objektibotasunari kalterik egin gabe.

Horregatik guztiagatik, dagozkidan eskumenez baliatuz,

EBATZI DUT

LEHENENGOA.- Onestea oinarri orokorrak eta espezifikoak, zein kanpoko deialdiaren bidez Giza Baliabideen eta Orientazioaren Zuzendaritzako lanpostu finko bat estaltzeko hautaketa prozesua arautu behar duten eranskinak.

BIGARRENA.- Onestea kanpoko deialdiaren bidez egindako hautaketa prozesuaren deialdia, aipatutako plazara sartzeko. Bestalde, eskaerak eta agiriak aurkezteko epea oinarri orokorretan adierazitakoa izango da.

HIRUGARRENA.- Izendatzea aurreko xedapenean adierazitako hautaketa prozesuaren hautaketa organo gia honako hauek:

- Lehendakaria: Indesa 2010 SL enpresaren zuzendaritza juridikoa, edo eskuordetzen duen pertsona.
- Kidea: Indesa 2010 SL enpresaren orientazioko teknikaria, edo eskuordetzen duen pertsona.
- Kidea: Indesa 2010 SL enpresaren finantza zuzendaritza, edo eskuordetzen duen pertsona.
- Kidea: Indesa 2010 SL enpresaren eragiketen zuzendaritza, edo eskuordetzen duen pertsona.
- Idazkaria: Indesa 2010 SL enpresaren zuzendaritza juridikoko teknikaria, edo eskuordetzen duen pertsona.

Bertaratu ahalko da, hitzarekin baina botorik gabe, Enpresa Batzordeko eta enpresaren Gerentziako Zuzendaritzako ordezkari bat, eta hala badagokio, eta beharrezkotzat jotzen bada, aholkularitza enpresetako batetik etorritako langileak.

LAUGARRENA.- Onestea QUALIS CONSULTORES DE TALENTO S.L. eta CAMPO Y OCHANDIANO S.L. aholkularitza enpresen partaidetza lehen fasean (publizitatea, hautagaien hautaketa, hautagaitzak biltzea eta baldintzak betetzen dituzten aztertzea), eta bigarren fasean QUALIS CONSULTORES DE TALENTO S.L aholkularitza enpresarena, ariketak, test psikoteknikoa eta puntuazioen zerrenda egiten parte hartuz, 16-24 kontratu txikiaren arabera.

BOSGARRENA.- Argitaratzea ebazpen hau korporazioaren web orrian, lantokietako iragarki tauletan, eta ebazpen honen jakinarazpena bidaltzea enpresa batzordeari, aurretik adierazitako aholkularitza enpresek lankide gisa egin ditzaketan argitalpen eta jakinarazpenak gorabehera.

Gasteiz, 2014ko abenduaren 18 an.

Ander Eguidazu

Indesa 2010 SL enpresaren zuzendari kudeatzailea

PROZESUAREN OINARRI ARAUTZAILEAK KANPOKO DEIALDIAN GIZA BALIABIDEEN ETA ORIENTAZIOAREN ZUZENDARITZAKO LANPOSTU FINKO BAT ESTALTZEKO.

OINARRI OROKORRAK

LEHENENGOA.- ARAU OROKORRAK

1.1.- Oinarri orokor eta oinarri espezifiko hauen xedea da, hautaketa prozesua arautzeko arauak ezartzea, kanpoko deialdian, Giza Baliabideen eta Orientazioaren arloko zuzendaritzarako lanpostu bat estaltzeko; hori guztia, Indesa 2010 SL enpresaren hitzarmen kolektiboan eta sozietatearen lanpostua deskribatzeko eta baloratzeko memorian ezarritakoaren arabera.

1.2.- Ariketetan deialdi honetan oro har ezarritakoa aplikatuko da. Hautaketa sistema, txanda, berariazko baldintzak, hautaketa proba, puntuazioak eta gainerako arau partikularrak, oinarri hauetan jasotzen den hautaketa prozesua arautzen duten oinarri espezifikoen arabera arautuko dira.

1.3.- Halaber, deialdi honen xedea da, hala badagokio, lan poltsa bat hornitzea deitutako lanposturako (Giza Baliabideen eta Orientazioaren Zuzendaritza), enpresa sor litezkeen aldi baterako beharrak betetzeko.

1.4.- Deitutako plazetarako ezarritako baldintzak ezingo dira inola ere bete nahitaezko probak eta baztertzeko probak gainditu ez dituzten hautagaien bidez, deialdiaren oinarri hauen arabera.

1.5.- Prozesuak, gutxienez, % 33ko desgaitasun maila baloratuko du hala egiaztatutako hautagaiengan.

BIGARRENA.- HAUTAGAIEN BALDINTZAK.

2.1- Eskatutako titulu akademikoa izateaz gain, titulua izapidetzeko eskubideak ordainduta ere izan beharko ditu.

Hautaprobetan onartzeko eta parte hartzeko, oinarri orokorretan adierazitako baldintzez gain, hautagaiek titulu hauek izapidetzeko eskubideak ordainduta ere izan beharko dute: lizentziatura / masterra (Boloniako Plan berriarekin) Psikologian, Zuzenbidean, Lan Harremanetan, Soziologian, Enpresa Administrazioen, Ekonomia zientzietan, Goi-mailako Ingeniaritzan edo beste edozein titulu baliokidetan.

2.2.- Dagozkion eginkizunak egitearekin bateragarriak ez diren osasun arazoak izatea. Horrela, jatorrizko lanpostuaren eginkizunekin bat ez badatoz, nahitaezkoa izango da osasun azterketa egitea.

2.3.- Gutxienez, 3 urteko esperientzia egiaztatuta izatea Giza Baliabideen arloko zuzendari moduan, eta 50 langile baino gehiagoko enpresetan.

2.4- Ezagutzen fasean egiaztatuko da:

Informatika tresnak erabiltzea eta ezagutzea.

Nahitaezkozkat ezartzen diren baldintza guztiak eduki beharko dira eskaerak aurkezteko epea amaitutakoan.

2.5- Gutxienez 2. hizkuntza eskakizuna egiaztatzea euskaran (2. HE).

2.6- B gidabaimena.

2.7- Ez egotea inongo administrazio publikotako edo Euskal Sektore Publikoko sozietate publikoetako zerbitzutik diziplina espediente bidez bereizita, ezta eginkizun publikoak betetzeko irmoki gaitasun gabetuta ere.

HIRUGARRENA.- ESKAERAK

3.1. -Barne prozesuan parte hartu nahi dutenek hala jaso beharko dute 0 eranskin gisa atxikitako eskabidean. Hori, honela entregatu beharko da:

CAMPO Y OCHANDIANO S.L.

a) indesa@campo-ochandiano.com , mezuaren gaia hau izanda: ERREF. INDESA

b) CAMPO Y OCHANDIANO bulegoak. Helbidea: Ercilla Kalea 18, 1º Eskuina 48009, Bilbo, 08:30etatik 14:00etara eta 14:30etatik 18:00etara

QUALIS CONSULTORES DE TALENTO S.L.

a) IndesaRRHH@qualisconsultores.es, mezuaren gaia hau izanda: ERREF. INDESA

b) QUALIS CONSULTORES DE TALENTO S.L bulegoak. Avda. Gasteiz 62-Bulego 5, 01012 Vitoria-Gasteiz, 8:30 13:30etara, eta 15:30etatik A 18:30etara (Ostiralak 15:00 arte)

Ez dira onartutako hautaketa prozesuan nahitaez eskatutako prestakuntza edo horren baliokidea egiaztatuta ez daukaten hautagaiek. Eskabidearekin batera jatorrizko agiri hauek ere nahitaez erantsi beharko dira.

- Eskaera (0 eranskina)
- Eskabide aurkezten den egunean indarrean dagoen NANen fotokopia.
- Bigarren oinarrian ezarritako titulua eta baldintzak egiaztatzea.
- Hautagaiek deitutako plazarekin zerikusia duten lanpostuetan izandako esperientziaren egiaztagiria. Horrez gain, agiri hauek ere nahitaez aurkeztu beharko dituzte:
 - Curriculum vitae.
 - Lan bizitzaren agiri eguneratua.
 - Lan kontratuak.
- Hala badagokie, % 33 baino gehiagoko desgaitasuna aintzatetsita izatea.

Eskaera mezu elektronikoz bidaliz gero, hautaketa prozesuko lehen proba egin aurretik, 5 egun balioduneko epea emango zaie onartutako pertsoneri aurretik adierazitako dokumentazioaren jatorrizko aleak aurkez ditzaten. Epe barruan eta zuzen egin ezean, hautagaitza ezetsiko da.

3.2.- Eskaerak 2024ko abenduaren 19tik 2025eko urtarrilaren 16ra bitartean aurkeztu ahalko dira, biak barne.

3.3.- Hautaketa prozesua izapidetzen den bitartean, Hautaketa Organoak 5 egun balioduneko epea irekiko du (behar bezala argitaratuko dena) baloratzeko merezimenduak alegatzeko eta egiaztatzeko. Ordura arte egindako nahitaezko eta baztertzeko ariketak gainditu dituzten hautagaien zatik bakarrak izango da. Merezimenduen agiriak egiaztatzeko, jatorrizkoak eta haien kopiak aurkeztuko dira; Indesa 2010 SL enpresaren Giza Baliabideen Zuzendaritzak konpulsatuko ditu kopiak.

3.4.-Hautaketa Organoak ezingo ditu inola ere baloratu behar bezala alegatu eta aurkezteko ezarritako epe barruan egiaztatu gabeko merezimenduak. Ez da baloratuko inola ere merezimendu bezala baldintza gisa ezarri dena.

3.5.- Hautaketa prozesuan parte hartzea borondatezkoa da, eta parte hartuz gero, datu pertsonalak tratatzeko, eta hala badagokio, proba psikoteknikoak, nortasun probak edo elkarrizketa egiteko baimena emango da.

Eskabidea aurkeztean berariaz adieraziko da datu pertsonalak tratatzearekin bat datorrela, hautaketa prozesuaren helburuetarako.

LAUGARRENA.- IZANGAIK ONARTZEA.

4.1.- Eskabideak aurkezteko epea amaituta, eskaera jasotzeaz arduratzen diren aholkularitza enpresek, oinarri hauetan eta aholkularitza enprekin sinatutako kontratuetan ezarritako irizpideen arabera aurretik hautatutako hautagaien zerrenda bidaliko diote Hautaketa organoari.

4.2.- Hautaketa Organoak onartutako eta baztertutako izangaien behin behineko zerrenda egingo du Hautaketa Organoak. Zerrenda hori hautaketa prozesuko parte-hartzaileen jakinaraziko die, eta bost egun balioduneko epea ezarriko du erreklamazioak aurkezteko, eta hala badagokio, zuzen daitezkeen akatsak edota erroreak zuzentzeko.

4.3.- Aurreko atalean ezarritako alegazioen epe barruan zer hautagai aurkeztu diren ikusi ahalko du enpresa batzordeak, eta hala badagokio, horietako zenbait onartzeko edo ez onartzeko alegazioak egin ahalko ditu.

4.4.- Erreklamazioetarako epea igarotakoan, hautagaien behin-behineko zerrenda eta egindako erreklamazioak jakinaraziko dira, hautaketa organoak behin betiko onar edo ebatz dezan.

BOSGARRENA.- HAUTAKETA ORGANOAK.

5.1.- Deialdi honetarako Hautaketa Organo bat eratuko da. Hautaketa organoko kideei urriaren 1eko 40/2015 Legean, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarenean, 23. eta 24. artikuluetan ezarritako abstentzio eta errekusazio kasuak aplikatuko zaie.

Prozesu honetan, aurretik adierazitako aholkularitza-enpresen laguntza jaso ahalko du Hautaketa Organoak, eta prozeduraren garapenean lankidetzan arituko dira.

5.2.- Hautaketa organoak ariketak egiteko aurreikusitako ordena aldatzeko eskubidea izango du. Horrela, ariketa bat baino gehiago egun berean egin daitezela ezartzeko eskumena izango du.

5.3.- Hautaketa organoaren kideen izen zerrenda deialdiarekin batera argitaratuko da.

5.4.- Hautaketa organoaren jarduketa baliozkoa izateko, boto eskubidea duten kideen gehiengo bertaratu beharko da, eta baita lehendakaria eta idazkaria ere. Erabakiak hartzeko, hautaketa organotik bertaraten diren kideen gehiengoaren aldeko botoa beharko da, eta berdinketa egonez gero, lehendakariaren kalitateko botoak ebatziko du.

5.5.- Hautaketa organoak erabateko autonomia funtzionala izango du, eta prozeduraren ordena egokia eta legezotasuna zainduko ditu. Era berean, sortzen diren zalantzak argitzeko baimena izango du. Horrez gain, prozesuan zehar sortzen diren gorabehera guztiak ebazteko erabakiak hartu ahal izango ditu. Oinarri orokorren edo espezifikoen edukia interpretatu ahalko du.

5.6.- Hautaketa organoaren lehendakariak neurri egokiak hartuko ditu izangaien nortasunaren konfidentziasuna hautaketa prozesu osoan bermatzeko.

5.7.- Hautaketa organoak kalifikaziorik handia lortu dien izangaia hautatu eta proposatuko du lanposturako, eta berdinketa egonez gero, diskriminazio positiboko irizpide hauek aplikatuko dira:

- a) Berdinketa gertatzen bada, % 33 baino handiagoko desgaitasuna onartuta duten izangaiei emango zaie lehentasuna lanposturako, eta horien artean, emakumeak lehenetsiko dira.
- b) Berdinketa gertatzen bada, eta ez badago berdinketarik gaitutako desgaituen artean, puntuaziorik handiena lortu duen emakumea lehenetsiko da; bestela, puntuaziorik handiena lortu duen izangaia.

5.8.- Nolanahi ere, 6 hilabeteko probaldia izango du lanpostuak. Probaldi horretan zehar izangaiek zein enpresak uko egin ahalko dute, eta halakoetan ez dute izango kalte ordaina kobratzeko eskubiderik; lan egindako egunak bakarrik ordainduko dira.

5.9.- Hala ere, Zuzendaritza-Kudeatzaitzaren ustez hautatutako pertsonak ez badu gainditzen ezarritako probaldia, puntuaziorik handiena lortu duen gainditutako bigarren izangaiari esleitu ahalko zaio plaza. Hori egon ezean, hirugarrenari, eta horrela hurrenez hurren.

5.10.- Probaldia ebaluatu eta kalifikatuko da, atal hauek baloratu:

- Egitekoak eta eginbeharrak betetzea.
- Lanaren kalitatea.
- Ikasteko jokaerak.
- Ekimena.
- Erantzukizuna eta egokitzea.
- Elkarlanerako jokaerak.
- Barneko eta kanpoko harremanak.

SEIGARRENA.- ARIKETAK EGITEA.

6.1.- Deialdi bakarra egingo da izangaiantzat, eta agertzen ez direnak hautaketa prozeduratik kanpo geratuko dira. Ariketa bakoitzera indarreko NANarekin edo gidabaimenarekin joan beharko dira.

6.2.- Ariketak non eta noiz izango diren jakinaraziko zaie izangaiei.

6.3.- Ariketa bakoitzaren emaitzak argitaratzen direnean, automatikoki 3 egun balioduneko epea irekiko da alegazioak aurkezteko. Epe hori eta alegazioen behin-behineko emaitzak behar bezala argitaratuko dira.

6.4.- Hautaketa organoak Indesa 2010 SL enpresatik kanpoko langileengana joko ahalko du zenbait ariketa baloratzeko eta egiteko.

ZAZPIGARRENA.- KALIFIKAZIOAK ARGITARATZEA.

7.1- Hautaketa fasea gainditu dutenen behin-behineko kalifikazioak sozietatearen egoitzan (Alaba Jeneralaren kalea, 10, 5., 01005 Vitoria-Gasteiz) eta Indesa 2010 SL enpresaren web orrian argitaratuko dira, eta hautaketa prozesuaren parte-hartzaileei jakinaraziko zaie.

7.2.- Hiru egun balioduneko epea irekiko da merezimendu eta ezagutzen fasean lortutako kalifikazioen arabera, eta 5.7. oinarrian adierazitako diskriminazio irizpideak aplikatu eta gero, hautatutako pertsonen behin-behineko zerrendaren aurkako alegazioak aurkezteko. Horrela, behin ebazita eta banan-banan jakinarazita, hautatutako izangaien behin betiko zerrenda argitaratuko da, 5.7. oinarrian ezarritako moduan.

Halaber, aurkeztutako merezimenduak eta haien balorazioa bistaratu ahalko ditu enpresa batzordeak 7.2. oinarrian adierazitako epean, eta haien balorazioaren aurkako alegazioak aurkeztu.

Hautaketa organoak egindako zerrendako hautagaiek ez badute plazarik lortzen deialdian eskainitakoen artean, lan poltsa batean sartuko dira, eta zerrenda horretatik deitzean, ordena errespetatuko da.

7.3.- Indesa 2010 SL enpresak lan poltsatik kontratatzekeo eskubidea izango du, beharren arabera, deitutako lanpostuan sortzen diren aldi baterako beharrak betetzeko, hautaketa prozesu hau amaitu eta hurrengo hiru urtetan gutxienez.

ZORTZIGARRENA. KONTRATATZEKO PROPOSAMENA.

8.1.- Izangaien behin betiko kalifikazioaren ostean, hautaketa organoak Giza Baliabideen eta Orientazioaren Zuzendariaren lanpostua behin betiko kontratatzekeo proposamena helaraziko dio Indesa 2010 SL enpresako Zuzendaritza-Kudeatzaitzari, deialdi honetan puntuaziorik altuena lortu duen izangaiaren izenarekin. Bestalde, lan poltsa bat eratuko du lanpostuan sortzen diren aldi baterako beharrak betetzeko.

8.2.- Indesa 2010 SL enpresako Zuzendaritza-Kudeatzailtzak deitutako plazari dagokion lan kontratua sinatzeko eskumena izango du.

8.3.- Hala ere, kontratua sinatutakoan, ezinbestekoa eta nahitaezkoa izango da Enpresako Zerbitzu Medikuek egindako osasun azterketa eta garatuko den lanposturako gaitasun adierazpena.

Osasun azterketa ez bada aldekoa, plaza lortu ez duen zerrendako hurrengo izangaia proposatuko dio hautaketa organoak Indesa 2010 SL enpresako Zuzendaritza-Kudeatzailtzari, eta horrela hurrenez hurren.

BEDERATZIGARRENA.- LAN BALDINTZAK.

Lanpostua eskuratzen duen pertsonak, deialdi honetan, eta Administrazio Kontseiluak 2021eko abenduaren 29an onetsitako sozietatearen lanpostuak deskribatzeko eta baloratzeko memorian, ezarritako lanpostuaren berezko lanaldia, lan baldintzak eta eginkizunak beteko ditu, betiere Indesa 2010 SL enpresaren hitzarmen kolektiboan ezarritakoaren arabera.

Zuzendaritza-Kudeatzailtza

Gasteizen, 2024ko abenduaren 18an.

Ander Eguidazu Aldalur.

OINARRI ESPEZIFIKOAK.

SARBIDE SISTEMA - HAUTAKETA PROZESUA-

Hautaketa merezimenduen fasearen eta ezagutzen fasearen bidez egingo da.

A.- MEREZIMENDUEN FASEA.

Ez da baloratuko inola ere merezimendu bezala baldintza gisa ezarri dena.

Merezimenduen fasean, gehienez, 80 puntu emango dira, atal hauen arabera:

1. Indesan zein Indesatik kanpo deitutako plazen antzeko eginkizunak izan dituzten lanpostuetan egindako lana:

Lor daitekeen gehieneko puntuazioa: 25 puntu.

Lanpostuan emandako hil bakoitzeko 1 puntu emango da, hiru urteko esperientziatik hasita, izan ere, ezinbesteko baldintza da Giza Baliabideen arloko Zuzendaritza lanpostuetan.

Izangaiek deitutako plazarekin loturiko lanpostuetan esperientzia egiaztatzeko, dokumentu hauen aurkeztu beharko dituzte nahitaez:

- Curriculum vitae.
- Sinatutako lan kontratuak.
- Lan bizitzaren agiri eguneratua.
- Deitutako lanpostuaren antzeko lana egin duen enpresen ziurtagiria. Esperientzia edozein proba fede emaileren bidez egiaztatu daiteke.

2. Lanpostuarekin loturiko trebakuntza akademiko gehigarri espezializatua, parte hartzeko baldintza gisa ez bada erabili:

Lor daitekeen gehieneko puntuazioa: 25 puntu.

- Masterrak eta 350 ordu baino gehiagoko espezializazio ikastaroak. Ikastaro horietako bakoitza banan-banan baloratuko da; gehienez, 12,5 puntu ikastaroko.
 - Masterrek 12,50 puntu izango dituzte.
 - 350 ordu baino gehiagoko espezializazio ikastaroek 9 puntu izango dituzte.

3. Euskara ezaupideak:

Gehieneko puntuazioa: 20 puntu.

- 3. edo 4. hizkuntza eskakizuna eta horien baliokideak: 20 puntu.

Ziurtagiri ofizialak, edo baliokideak badira, hori jaso eta justifikatzen duen araudia.

4. Lanpostuak betetzea, desgaitasunaren arloko boluntarioria:

Lor daitekeen gehieneko puntuazioa: 10 puntu.

Lanpostuan edota desgaitasunaren esparruarekin zuzenean loturiko boluntariorian emandako hilabete osoko 0,4 puntu emango dira, gehienez, 10 puntu.

B.- EZAGUTZEN FASEA.

Oposizioaldiak, gehienez, 100 puntu izango ditu, atal hauen arabera:

1. Lehenengo ariketa. Idatzizko proba.

Nahitaezko eta baztertzeko ariketa izango da izangai guztientzat.

Test moduko edo galderak garatzeko ariketa izango da, I. eranskinean jasotzen den gaitegia kontuan hartuz.

Ariketa honetan, gehienez, 60 puntu emango dira, eta gutxienez, erdia lortu behar da gainditzeko.

2. Bigarren ariketa.

Nahitaezko eta baztertzeko ariketa izango da izangai guztientzat.

Elkarrizketa pertsonala, proba psikoteknikoa edo nortasun proba izango da, deitutako lanpostuaren profileraren egokitzen den ala ez baloratzeko.

Ariketa honetan, gehienez, 40 puntu emango dira, eta 20 puntu beharko dira gainditzeko. Besteak beste, hautagaiek arlo hauetan dituzten gaitasunak ebaluatuko dira:

- Ekimena.
- Antolatze gaitasuna.
- Talde lana.
- Agintze dohainak.
- Komunikazio trebetasunak.

0 ERANSKINA - ESKABIDEA

Probetan izena emateko eskaera, kanpoko deialdi araubidean:



INDESA 2010 SL enpresaren ZUZENDARITZA-KUDEATZAILTZARENTZAT (Giza baliabideen aholkularitza enpresa)

Izena eta abizenak: _____

IFZ _____

HELBIDEA

Telefonoa: _____

HELBIDE ELEKTRONIKOA

Lehenengoa: Giza baliabideen eta orientazioaren zuzendaritzarako lanpostua betetzeko kanpoko deialdian izena eman nahi dut.

Agiri hauek erantsiko ditut:

- 1.-
- 2.-
- 3.-
- 4.-
- 5.-

Bigarrena.- Baimena ematen dut nire datu pertsonalak tratatzeko deialdi honen helburua betetzeko beharrezkoa denean.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko _____ ren _____ a.

Izangaiaren sinadura:

I. ERANSKINA - GAITEGIA.

EZAGUTZA OROKORRAK.-

- 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, sektore publikoaren araubide juridikoarena. 1-24 artikulua, biak barne.
- 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, emakume eta gizonen berdintasunerakoa. Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren arloan euskal aginte publikoen jarduketa arautu eta orientatu behar duten printzipio orokorrak. Administrazio araugintzan eta jardunean berdintasuna sustatzeko neurriak.
- Betetze penala: Zigor Kodea; Prozedura Kriminalaren Legea; Fiskaltzaren 1/2016 zirkularra; 10/2010 Legea, apirilaren 28koa, kapitalak zurtzea eta terrorismoaren finantzaketa prebenitzeko; eta sozietatearen Delituak prebenitzeko eskuliburua.
- Datuen babesa: Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016/679 erregelamendua (EB), 2016ko apirilaren 27koa; 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5koa, Datu Pertsonalak Babestekoa eta Eskubide Digitalak Bermatzekoa.
- Prozedura, araubide juridikoa, dirulaguntzak eta kontratazio publikoa: 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, administrazioen administrazio araubide prozedura erkidearena; 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena; 38/2003 Lege orokorra, azaroaren 17koa, Dirulaguntzena; 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoaren kontratuena; 19/2013 Legea, abenduaren 9koa, gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzkoa, eta 53/1984 Legea, abenduaren 26koa, Herri Administrazioetako langileen bateraezintasunei buruzkoa.
- Lanpostuak baloratzeko memoria, Indesa 2010 SL enpresaren web orrian argitaratutakoa.
- 19/2024 DEKRETUA, otsailaren 22koa, Euskal Sektore Publikoan euskararen erabilera normalizatzeari buruzkoa.

DESGAITASUNEN ARLOA.-

- 1/2013 Legegintzako Errege Dekretua, azaroaren 29koa, ezintasuna duten pertsonen eskubideei eta haien gizarteratzeari buruzko Lege Orokorraren testu bategina onartzen duena.
- 364/2005 Errege Dekretua, apirilaren 8koa, desgaitasuna duten langileentzat salbuespenez gordetako kuotaren betetzea arautzen duena.
- 2273/1985 Errege Dekretua, abenduaren 4koa, elbarrien enplegu zentro bereziena.

ALN ARLO OROKORRA ETA ESPEZIFIKOA ETA GIZARTE SEGURANTZA

- 2/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 23koa, onesten duena Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategina.
- 1368//1985 Errege Dekretua, uztailaren 17koa, enplegu zentro berezietan lan egiten duten desgaituen harreman berezia arautzen duena.
- Indesa 2010 SL enpresaren indarreko hitzarmen kolektiboa.
- 8/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30ekoa, Gizarte Segurantzaren Lege Orokorraren testu bategina onartzen duena.

NORBERAREN BALIABIDEEN ARLOA

- 9/2019/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuena, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauen transposizioa egiten duena Espainiako ordenamendu juridikora.
- 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, sektore publikoaren araubide juridikoarena.
- Indesa 2010 SL enpresaren estatutuak.

DESGAITUAK LANERATZEKO LAGUNTZEN ARLOA

- 5/2011 Legea, martxoaren 29koa, ekonomia sozialari buruzkoa.
- Lan orientaziorako eta laguntza duen enplegurako laguntzen ebazpenak.
- Eusko Jurlaritzaren 152/2023 Dekretua, urriaren 17koa, EAEn desgaitasuna duten pertsonen enplegarritasuna arautzen duena.

II. ERANSKINA - HAUTAKETA ORGANOA.

Lehendakaritza: Indesa 2010 SL enpresaren zuzendaritza juridikoa, edo eskuordetzen duen pertsona.

Kidea: Indesa 2010 SL enpresaren orientazioko teknikaria, edo eskuordetzen duen pertsona.

Kidea: Indesa 2010 SL enpresaren finantza zuzendaritza, edo eskuordetzen duen pertsona.



Kidea: Indesa 2010 SL enpresaren eragiketen zuzendaritza, edo eskuordetzen duen pertsona.

Idazkaria: Indesa 2010 SL enpresaren zuzendaritza juridikoko teknikaria, edo eskuordetzen duen pertsona.

Bertaratu ahalko da, hitzarekin baina botorik gabe, Enpresa Batzordeko eta enpresaren Gerentziako Zuzendaritzako ordezkari bat, eta hala badagokio, eta beharrezkotzat jotzen bada, aholkularitza enpresetako batetik etorritako langileak.

LANPOSTUA: Giza baliabideen eta orientazioaren zuzendaria, Bulego Nagusiei atxikita.
SOLDATA: Lanpostuak deskribatzeko eta baloratzeko memoriaren arabera.

LANTOKIA: Indesa 2010 SL enpresaren bulego nagusiak.

SOLDATA: Lanpostuak deskribatzeko eta baloratzeko memoriaren arabera.

EGINKIZUNAK ETA ERANTZUKIZUNAK

Eginkizun orokorrak:

- a. **Indesaren web orrian argitaratutako LBren arabera**
(link):<https://www.indesa2010.eus/wp-content/uploads/2018/01/O.D.1.MEMORIA-VALORACION.pdf>

Berariazko eginkizunak:

Eginkizunen artean egongo dira:

- Giza baliabideen eta orientazioaren saila zuzentzea.
 - Giza Baliabideen Arloko kide guztiek egindako lanak koordinatzea, antolatzea eta jarraitzea, Gerentziarekin eta beste arlo batzuekin ezarritako lehentasunetan eta irizpideetan oinarrituta.
 - Langileak hautatzeko prozesuez arduratzea, berdintasun, merezimendu, gaitasun eta publizitate printzipioak, Lanpostuak deskribatzeko eta baloratzeko memoria eta hitzarmena betetzen dituzten deialdien oinarriak eginez. Zuzendaritza juridikoaren langileen laguntza izango du.
 - Giza Baliabideen Administrazioaren arduraduna: kontratazio politika, nomina, gizarte aseguruaren izapidetzea, AB/LI bajak, baimenak eta lotutako bestelako prozesuak.
- Langileen antolaketaren eta plangintzaren arduraduna Eragiketen Zuzendaritzarekin batera, lanpostu zerrendaren arabera.
- Langileen aurrekontuaren jarraipenaren arduraduna, eta errealitatearekin dauden desbideratzeak aztertzea.
- Ordainsarien, konpentsazioen eta gizarte onuren politikaren arduraduna (ikasketetarako beka eta laguntzak, garraiorako laguntzak, aseguru kolektiboa, ...), Finantza Zuzendaritzarekin eta Eragiketen Zuzendaritzarekin koordinatuz.
- Erakundeekin diru-laguntzak kudeatzearen eta izapidetzearen arduraduna, eta egon daitezkeen dirulaguntzak bilatzea.
- Orientazio eta laguntza unitateko burua: Orientazio prozedurak diseinatu eta zuzentzen ditu, lan prestakuntza, kanpoko eta barneko langile desgaituen enplegurako prestakuntza eta laguntza, haien kanpoko edo barneko laneratzea sustatzeko helburuarekin.
- Lan harremanen arduraduna, gainerako zuzendaritzekin eta Zuzendaritza-Kudeatzaileekin batera.
- Absentismoa ikuskatzearen arduraduna, langileen zentroen arteko mugimenduak, adin piramideak eta bestelakoak aztertuz.

- Langileen prestakuntzaren eta prestakuntza planaren arduraduna.
- Datuen babesaren arloan, bere arloan erabiltzen diren datu pertsonalak betetzen direla egiaztatzearen arduraduna.
- Noizean behin bere lanpostuaren beste edozein lan egitea, aurrekoen antzekoa bada, edo nagusiak agintzen badio. Eraginkortasun eta efizientzia printzipioen arabera
- 19/2004 Dekretua, otsailaren 22koa, Euskal Sektore Publikoan euskararen erabilera normalizatzeari buruzkoa txertatzearen arduraduna.

Aldizka eginkizun hauek ere izango ditu:

- Indesa 2010 SL enpresako talde lana, adiskidetasuna, lan betetzea eta langileen sustapena egiten dela zaintzea.
- Giroa eta langileen gogobetetasuna: langileen gogobetetasun maila eta gustura ez egoteko arrazoiak detektatzea erakundearen barruan, beharrezko laguntzak emateko, besteak beste, lan bizitzaren eta familia bizitzaren uztartzea eta lanpostua pertsonari egokitu ahal zaion kontuan hartuz.
- Astero gainerako zuzendariekin biltzea, sozietatearen nondik norakoak aztertzeko.
- Astero gainerako zuzendariekin eta arloko buruekin biltzea, arlo bakoitzaren jarraipena egiteko.
- Zuzendaritza-Kudeatzailezarekin biltzea eta sozietateko ordezkariekin eta enpresako sindikatuekin egindako bileretan laguntzea. Enpresako Batzordearekin Zuzendaritzako ordezkaria da.
- Enpresako zuzendaritzaren ordezkaria da zenbait batzordetan: Batzorde parekidea, Langileen Jarraipenerako Batzordea, Segurtasun eta Osasun Batzordea.
- Lan absentismoaren egoerari buruzko txostenak egiten ditu aldizka, eta haien arrazoiak aztertzen ditu, neurri zuzentzaileak proposatuz.
- Enpresaren nominak kontrolatzearen eta ordaintzearen arduraduna, legearen arabera.
- Gainerako zuzendariari laguntzen ditu Zuzendaritza Juridiko Administrazioarekin batera diziplina araubidea aplikatzen.